

Oraingoan garapen pertsonalaren arloa lantzea gustatuko litzaidake. Beraien adina kontuan hartuta, nortasuna, lagunekin dituzten harremanak, gurasoekin dituztenetan duten eragina, horrekin lotuta bizi dizuzten emozioak....

Horretarako lehendabizi, ikasle bakoitzak bere burua defini dezala "nire nortasuna 1" fitxa betez, izaera deskribatzen duten ezaugarriak daude bertan eta bakoitzean ze polotan kokatzen duten beren burua esan behar dute.

Ondoren, ikasle bakoitzak bere ikaskideen zerrendan, izen bakoitzaren ondoan horietako ezaugarri bate edo bi jar ditzala. Ikaskide guztiena, ahal bada ondokoari kopiatu gabe, benetan pentsatzen dutena. Eta gero ikasle bakoitzarena moztu eta dagokionari eman edo mahaiari utzi. Horrela bakoitzak bere buruz pentsatzen duenaz gain ikaskideek pentsatzen dutena ere izango dute, "nire nortasuna 2" orrian konparaketa egin dezaten. Berarekin zertan dauden ados eta zertan ez.

Hurrengo saioan Thirteen pelikula ikusteko, aurrez laguntasunaren inguruan dela komentatu eta ea beraien zer ulertzen duten laguna edo laguntasun kontzeptuaz. Nola deskribatuko luketen. Gero pelikula ikusi. 1:30 irauten du.

Pelikula amaitzean nahi duzuen moduan landu dezakezue. Thirteen-en gidoia lehengo astean eman nizuen, bertan badaude hainbat galdera edo ariketa proposatuta. Edo bestela nik pelikula ikusi ondoren, galdera batzuk prestatu ditut eta horiek landu ditzakezue, talde txikitari eta gero handian komentatu, bakoitzak egin dezala berea eta gero denon artean, zuzenean denon artean,.... Zuek ezagutzen duzue hobekien zuen taldeak nola lan egiten duen.

Pelikula ikuspuntu ezberdinetatik landu daiteke, gai ezberdinak jorratzen bai ditu (sexua, drogak, alkohola, harremanak...) baina nik galderak harremanen inguruan egin ditut, nola aldatzen diren, besteek gudan duten eragina.... Zuen esku zer arlotatik landu nahi duzuen. Agian pelikula ikustean norbaiti beste modu bat okurrituko zaio, ba aurrera!!!

Eta honekin amaitzeko, 2 jarduerak lotzeko, galdera bat prestatuko nieke ikasleei. "Pelikularen aurretik jarduera bat egin genuen, bakoitzaren nortasuna eta besteek zuten iritzia ezagutzeko. Konturatu zarete guztietan ez dela zuek pentsatzen duzuen berdina besteek pentsatzen dutena. Uste duzu pelikulan Tracyk egin duen bezala besteek ongi erortzeko zure izaera aldatuko zenukela? Egokia litzateke lagunak edukitzeko zure jarrera aldatu beharra?".

Honekin batera, Caminoren asmoa da lan honi bukaera "proiektu" batekin ematea, lehen ebaluaketan kontsumismoa Bide Berri eta Medicus Mundiren ondoren merka truekean amaitu zen bezala. Oraingoan txapa batzuk aipatu ditu baina beste edozer gauza egin dezakete, txapak atera gabe laguntasunaren inguruko esaldiak pentsa ditzatela eta mural batean jarri, pelikulako zati bat hautatu eta horri buelta nola emango lioketen antzezpen txiki bat egin, laguntasunaren inguruko poesiaren bat sortu.... Edo okurritzen zaizuen beste zerbait. Ala ere oraindik pixka bat falta da horretarako beraz joango gara zehazten. Edo ez da egiten eta listo.

PELIKULAREN ZAIN ZEUDEN BERAZ GUSTURA ETA LASAI EGONGO DIRA!!!!
ANIMO!!!!!!